

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4915

AGINDUA, 2014ko azaroaren 12koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinen bidez iragartzen baita Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeentzako eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoentzako ekipamenduak erosteko diru-laguntzetarako 2015eko ekitaldiko deialdia.

Lanbide Heziketa ahalegin handia egiten ari da Europan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erki-degoan bere araudia, curriculuma, giza baliabideak eta baliabide materialak produkzio-sistemak ezartzen dizkion prestakuntza-eskaeretara egokitzeko.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoak aurreikusten du lanbide-heziketako eskaintzen sistema integratu bat: hezkuntza-sistemako hasierako lanbide-heziketa eta lan-sistemako enplegurako lanbide-heziketa. Legeak lanbide-kualifikazioen katalogo bat ezartzen du sistema integratuaren ardatz instituzional gisa, baita prestakuntzako baliabideak optimizatu, ikaskuntzako emaitzak hobetu eta, azken batean, biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila gorena lortzera bideratutako eskumen profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura bat ere.

Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa (HLO) eta Ekonomia Jasangarriari buruzko 2/2011 Legea garatzeko, 1147/2011 Errege Dekretuak hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren ordenazio orokor berria ezartzen du. Agindu honen ondorioetarako, erdi mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloak hartzen ditu ordenazio horrek.

EAEn, Lanbide Heziketa funtsezko balioa da gure ekoizpen sektoreen lehiakortasunerako eta pertsonen enplegarritasunerako. EAEn, industria-sektoreko enpresen lanpostu gehienetarako, lanbide-heziketako titulu bat eskatzen da. Hori dela eta, neurri handi batean, enpresen lehiakortasuna pertsonen prestakuntzaren mende dago; prestakuntza horrek eskatzen du trebakuntza bat, egungo bestelako eremuetan jarduerak zabaltzea eta hedatzea xede duena.

Bestalde, Euskadiko LH 2015 Agenda Estrategikoaren bigarren helburuan ezartzen du euskal ekonomiaren sektore garrantzitsuenetan inguru estrategikoak eratzeko beharra, enpresen eta lanbide-heziketako ikastetxeen sarea ehunduz. Hori dela eta, ikastetxeek enpresekin eskuz esku jardun behar dute, haiek lagunduz eta aldaketa orokorrak dakarzkigun beharrizanei erantzuna ematea ahalbidetzen duten proiektuak garatuz.

Aldaketa geopolitikoak, sozialak eta ekonomikoak transformazioa eragiten ari dira enpresen lehiatzeko eran eta pertsona langileen prestakuntza-beharrizanetan. Eta honek guztiak, eskatzen du, besteak beste, espezializazio teknikoa, hain zuzen, industriaren sektorean garapen teknologiko aurreratuarekin, prestakuntza-zikloetako ekipamenduak egokitzea eta eguneratzea dakarrena.

Agindu honek arautzen du egun garapen teknologiko aurreratuagoa duten sektore industrialetako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloen ekipamendua eguneratzera bideratutako diru-laguntzen deialdia, alegia, 2014-2015 ikasturtean, Lanbide Heziketako irakaskuntzak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeetan eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan burutzen diren prestakuntza-zikloak.

Horregatik, eta kontuan hartuz diru-laguntzei buruz indarrean dagoen legeria, hain zuzen ere, azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko VI. titulua, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoa, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Agindu honen xedea da honako lanbide-familia hauen ekipamendua eguneratzea, ekoizpen-sektorearen egungo garapenarekiko garapen teknologiko aurreratuagoa duten industria-sektorearekin zerikusia duten familiak, alegia:

- Energia eta ura.
- Elektrizitatea – elektronika.
- Fabrikazio mekanikoa.
- Instalazioa eta mantentzea.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Diru-laguntzetarako agindu honen onuradun izango dira 2014-2015 ikasturtean aurreko atalean aipatutako lanbide-familietako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak itunduta edo hitzartuta dituzten itunpeko ikastetxeak eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoak.

3. artikulua.– Jarduera diruz lagungarriak.

1.– Diruz lagundu ahal izango da agindu honen 1. artikuluan adierazitako lanbide-familietako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloen ekipamenduak eguneratzeko beharrezko ekipamendua erostea.

2.– Agindu honen bidez diruz lagundutako ekipamendu-erosketa hori 2015eko ekitaldian gauzatu beharko da.

4. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Agindu honetako laguntzen zenbatekoa, guztira, zazpiehun eta hirurogeita hamasei mila hirurehun eta hamalau (776.314) euro izango da.

Artikulu honetan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean beste laguntza-programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira, eta, betiere, diru-laguntzak ebatzi aurretik. Horrelakoetan, Lanbide Heziketako sailburuordearen ebazpen bidez emango da horren berri.

5. artikulua.– Eskakizunak.

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, eskakizun hauek bete beharko dituzte ikastetxe onuradunek:

1.– Diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean ez egotea, ezta sexu-bazterke-

riagatik zigortuta ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

2.– Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zergak ordainduta eduki beharko dituzte.

3.– Diru-laguntzak eta laguntzak onuradunei esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek eman dituzten eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzengatik hasi eta oraindik ere izapidetzen ari den prozedura oro.

6. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Heziketako eta Ikaskuntza Zuzendaritza izango da diru-laguntzak emateko prozedura hone-tako organo instrukziogilea.

2.– Balioespen-batzorde batek aplikatuko ditu agindu honen 7., 8., 9. eta 10. artikuluetan jasozten diren balioespen-irizpideak. Honako hauek izango dira batzorde horretako kideak:

a) Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria; lehendakaria izango da.

b) Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

c) Lurralde-ordezkaritza bakoitzeko Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikari bat.

d) Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkaria izango da; iritzia ematerik izango du, baina botorik ez.

7. artikulua.– Laguntzak ematea eta eskabideak balioestea.

1.– Diru-laguntza emango zaie laguntza eskatu eta eskakizunak betetzen dituzten erakundeei.

2.– Laguntzaren zenbatekoa hautaketa- eta balioespen-irizpideen eta 8., 9. eta 10. artikuluetan zehazten diren zenbatekoen arabera izango da.

8. artikulua.– Balioespen-irizpideak.

Hona hemen diru-laguntza hauek emateko balioespen-irizpideak:

1.– 2014-2015 ikasturtean, eman diren agindu honen 1. atalean zehaztutako lanbide-familie-tako heziketa-zikloen kopurua –Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin itunduak edo hitzartuak–: % 50eko balio haztatua.

2.– Agindu honen 1. atalean zehaztutako lanbide-familietako heziketa-zikloetan 2014-2015 ikasturtean matrikulatutako ikasleen kopurua: % 10eko balio haztatua.

3.– Lanerako Lanbide Heziketan parte hartu izana: % 20ko balio haztatua.

9. artikulua.– Laguntza-ematea zehaztea.

1.– Agindu honetako 8.1 paragrafoa honela balioetsiko da:

a) Heziketa-ziklo bakoitzari koefiziente bat emango zaio, hain zuzen ere, taula honetan adierazitakoetatik zein talde dagokion kontuan hartuta:

Heziketa zikloak	Taldea	Koefizientea
Automatizazioa eta robotika industrialak.	C	2
Instalazio elektrikoak eta automatikoak	B	1,5
Mantentze elektronikoa.	B	1,5
Sistema elektroteknikoak eta automatikoak	B	1,5
Telekomunikazio- eta informatika-sistemak	C	2
Metalezko eraikuntzak	D	2,5
Fabrikazio mekanikoko diseinua.	B	1,5
Mekanizazioa.	D	2,5
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.	D	2,5
Soldadura eta galdaragintza	D	2,5
Beroa sortzeko instalazioak.	D	2,5
Hozteko eta klimatizazioko instalazioak.	D	2,5
Mantentze elektromekanikoa.	D	2,5
Mekatronika industrialak.	D	2,5
Lanbide-arriskuen prebentzioa	C	2

b) Batuko dira ikastetxe bakoitzak aipatu ikasturtean eskaintzen dituen prestakuntza-zikloei dagozkien aurreko koefizienteak.

c) Aurreko paragrafoaren arabera, heziketa-zikloei dagozkien koefizienteen baturan zenbateko handiena lortzen duen ikastetxeak eskuratuko du adierazitako balioespenik handiena, eta gainerakoak proportzio sinple baten bidez haztatuko dira.

2.– Agindu honetako 8.2 paragrafoa honela balioetsiko da:

a) Aurreko paragrafoan aipatutako lanbide heziketako heziketa-zikloetan 2014-2015 ikasturtean matrikulatutako ikasleak zenbatuko dira.

b) Aurreko paragrafoko batuketatik kopuru handiena lortzen duen ikastetxeari emango zaio adierazitako balioespenik handiena, eta gainerakoak proportzio sinple baten bidez balioetsiko dira.

3.– Lanerako lanbide-heziketako eskaintzan izandako parte-hartzea –agindu honetako 8.3 paragrafoan adierazitakoa– balioesteko, ikastetxeak 2013. urtean emandako eta bukatutako ikastaroak baino ez dira aintzat hartuko, honako irizpide hauen arabera:

a) Batu egingo dira Lanbidek ziurtatutako orduak eta Hobetuzek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren 2011ko eta 2012ko deialdien bitartez emandakoak. Bi deialdiok EAEko langileei prestakuntzarako diru-laguntzak emateko dira, eta, hurrenez hurren, 2012ko maiatzaren 8ko EHAA eta 2013ko maiatzaren 31ko EHAA argitaratu ziren.

b) Aurreko paragrafoaren arabera, 2013. urtean emandako eta amaitutako ikastaroen ordu-kopuru handiena lortu duen ikastetxeari emango zaio lehenago adierazitako balioespenik handiena, eta gainerakoak proportzio sinple baten bidez balioetsiko dira.

10. artikulua.– Laguntzen banaketa.

1.– Ikastetxe bakoitzaren guztizko puntuazioa lortuko da aurreko artikulua atal bakoitzean lortutako puntuazioak batuz.

2.– Honela kalkulatu da onuradun bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion: agindu honetako 4. artikuluan ezarri den aurrekontu-hornidura ikastetxe bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera banatuko da, zuzeneko proportzioaren arabera. Zenbateko hori ez da inoiz izango ikastetxeak eskatutakoa baino handiagoa.

11. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Eskaerak modu elektronikoan aurkeztu beharko dira, euskadi.net-eko egoitza elektronikoan.

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, eta Platea E-Administrazio Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Euskadi.net-en daude eskuragarri eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako eskabide-ereduak modu elektronikoan izapidetzeko zehaztapenak.

https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/fp_ekipamendua/y22-izapide/es/

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2014/fp_ekipamendua/y22-izapide/eu

4.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte eskabideak, kontsultak, ebazpena eman edo ukatu aurreko izapideak eta justifikatze-izapideak egiteko.

5.– Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

12. artikulua.– Eskabideak eta agiriak aurkeztea, eta horretarako epea.

1.– Behar bezala betetako eskari arautuan aurkeztu beharko dira eskabideak, eta horretarako epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) «I. eranskina - Ekipamenduari buruzko memoria» 3. artikuluan aipatzen dena.

b) Eskatzailearen –pertsonaren edo erakundearen– erantzukizunpeko adierazpena, betebeharrak hauek egiaztatzeko:

– Halako administrazio edo erakunde publiko zein pribaturi eskatu izana eta, hala balitz, haiengandik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideak.

– Ez dagoela diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debekuren baten eraginpean, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

– Egiatzaileak direla eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak, eta betetzen dituela laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

3.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du laguntzak izapidetze elektronikoen bitartez eskatu dituen pertsona edo erakundea zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela, erakunde eskatzaileari oniritziarik eskatu gabe, betiere Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

2014-2015 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin itundutako edo hitzartutako ikastetxeek ez dute egiaztatu beharrik izango Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zergak ordainduta dituztela; izan ere, izapide hori sail horren Hezkuntza Itunen eta Ordainketa Eskuordetuaren zerbitzuaren bidez egin behar dute.

4.– Aurkeztu den eskabidean akatsen bat edo okerren bat dagoela ikusten bada, 10 eguneko epea emango zaio ikastetxe interesdunari akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak ekar ditzan. Hala egin ezean, eta 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera eman ondoren, bere eskaeran atzera egin duela joko da (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

13. artikulua.– Ebazpen proposamena.

Balioespen-batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Lanbide Heziketako sailburuordeari, eta, hartan, 14.1 artikuluan adierazten diren datuak jasoko dira.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du deialdia, eta EHAA-n argitaratutako iragarki baten bidez jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunei, erakunde onuradunak eta emandako zenbatekoa zehaztuta. Horrekin batera, onartu ez diren eskabideak eta diru-laguntza ukatu zaienak zehaztuko dira ebazpenean, hartarako arrazoiak emanda.

2.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko, gehienez ere sei hilabete izango dira, agindua argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Epe horretan berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsitatzeko ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan araututakoaren arabera.

15. artikulua.– Justifikazioa.

Ekipamenduari buruzko diru-laguntza hauek justifikatzeko, «II. eranskina – Diruz lagundutako ekipamenduaren justifikazioa» dokumentua bete beharko da, 14. artikuluan adierazitako jakinarazpena jaso ondorengo 2 hilabeteetan. Dokumentu horrekin batera, agindu honetako 3. artikuluan adierazitako epeari dagozkion fakturak aurkeztu behar dira.

https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/fp_ekipamendua/y22-izapide/es/

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2014/fp_ekipamendua/y22-izapide/eu

Justifikazio horiek bide elektronikoz aurkeztu beharko dira, <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak> web-gunean.

16. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, 15. artikuluan arabera behar bezala justifikatu eta gero.

17 artikulua.– Baldintzak ez betetzea eta itzulketa-prozedura.

1.– Laguntzak ezeztatu egingo dira baldin eta ikastetxe onuradunek bete gabe uzten badituzte agindu honetan ezarritako baldintzak eta betekizunak, eta laguntzak ez badituzte erabiltzen aurkeztutako proiektuan zehaztutako helburuetarako. Hori dela-eta, diru-laguntzak benetan zertara bideratu diren egiaztatze eskumena izango du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak.

2.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan izan ziren baldintzak betetzen ez badira, jasotako dirua eta horrek sortutako legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuliko zaizkio. Hala ezartzen dute Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-laguntzen bermeak eta itzulketak arautzen dituen 698/1991 Dekretuak.

3.– Lehen esandakoari kalterik eragin gabe, diru-laguntza emateko kontuan izan ziren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada, aldatu egin ahal izango da diru-laguntza emateko ebazpena ere, betiere agindu honetan onuradun izateko ezarritako baldintzak errespetatzen badira.

18. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Beste diru-laguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

19. artikulua.– Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretarik, diru-laguntzaren esleipena jakinarazi eta 15 eguneko epean erakunde onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko dute.

3.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diete, haien jardunean ari direla deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

4.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketako eta Ikaskuntza Zuzendaritzari.

5.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari.

20. artikulua.– Datuen babesa.

1.– Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organi-koarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen izapideak egiterakoan jasotako datu pertsonalak –parte-hartzaileek tratatzea eta argitaratzea baimendu dituztenak– «Diru-laguntzak eta laguntzak» izeneko fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren helburua diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea izango da, baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruzko informazioa ematea ere. Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren aurrean balia daitezke. Horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

2.– Deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdiei Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko zaie.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean izango da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espeditteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, agindu honetako diru-laguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015. urteko aurrekontu orokorretan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 12a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

BEHARREZKO EKIPAMENDUARI BURUZKO MEMORIA

Ikastetxearen izena:

Lanbide-heziketa irakasteko beharrezkoa den ekipamendu orokorra (3. artikulua)

Heziketa-zikloaren edo heziketa-zikloen izena:

--

Eskatutako ekipamenduaren xehetasuna:

--

Unitate-kopurua	Eskatutako ekipamenduaren deskribapena	Prezioa guztira + BEZa
	Guztizko partziala	

Ekipamendua eskuratuta lortu nahi diren helburuak:

--

II. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO EKIPAMENDUAREN JUSTIFIKAZIOA

Lanbide-heziketako heziketa-zikloak irakasteko behar den ekipamendua: (3. artikulua)

Heziketa-ziklo(ar)en izena:

Faktura-zk.	Fakturaren eguna	Enpresa hornitzailea	Deskribapena	Prezioa guztira + BEZa
			Guztizko partziala	